Euskara UEMA, euskara gizarte-hizkuntza izateko egitasmoa 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2013ko apirilaren 11. IX. urtea. 2.575. zenbakia. **tolosaldea.hitza.info**

Asier Izagirre Eskalatzailea eta alpinista

«Gure esperientziak gazteei transmititzea tokatzen zaigu»

Asier Izagirre tolosarrak bideo emanaldia eskainiko du, gaur, 20:00etan, Amezketako Mendi Astearen barruan, kultur etxean

Mendizalea Amezketan hasi zen eskaladan; Himalaiako proiektuak albo batera utzita hastapenen inguruko hitzaldia emango du 5

Asier Izagirre tolosarra Patagoniako Torre Avellano mendian. JAVIER AMONARRIZ

Udaberriko egitaraua 'Hitzak' antzezlanarekin hasiko da

Leidorren eskainiko dute emanaldia, bihar, 20:30ean; kultur ekitaldiez gozatzeko aukera izango da, Tolosan, ekaina bitartean 3

Zigorra berretsi diote Leitzan atentatua asmatu zuen guardia zibilari

Lau hilabeteko kartzela zigorra eta isuna ezarri dio Nafarroako Auzitegiak 7

Sinadura bilketa hasi dute Maxurrenea udalari itzultzea eskatzeko

Leitzako tabernetan, udal bulegoetan eta dendetan egin daiteke; elkarretaratzea egingo dute hilaren 22an 7

Alurrek dantza ikastaroa antolatu du 7

Joxan Lizarribarri azken agurra emango diote gaurko hileta elizkizunean

Donostiako Ibaeta auzoko Espiritu Santua elizan egingo diote, 19:00etan, azken agurra Berria Taldeko presidente ohiari; jende ugari izan da beilategian, tartean euskalgintzako hainbat ordezkari; Lizarribar «gizon osoa eta elegantea» zela esan dute gertukoek 4

Lehen urteurreneko festa egingo du Matxintxulo Gaztetxeak, etzi

Duela urtebete «ilusio handiz» elkartu ziren Asteasuko gazteak; larunbaterako egun osoko festa antolatu dute gazte asanbladako kideek 6

Hitzezko tratu txarrak taularatuz hasiko da kultur egitarau berria

Hika Teatro taldeak 'Hitzak' antzezlana eskainiko du, bihar, 20:30ean, Leidor aretoan

Itzea Urkizu

Tratu txar emozionalek gidatuko dute, bihar Leidor aretoan ikusgai izango den *Hitzak* antzezlanaren haria. 20:30ean hasiko da, Hika konpainiaren obra.

Agurtzane Intxaurraga arituko da zuzendari lanetan, eta zuzendariak berak idatzitako testuko pertsonaiak, berriz, Klara Badiola, Ainhoa Aierbe, Ane Pinedo eta Jabi Barandiaran aktoreek interpretatuko dituzte.

Isotorioa hiru emakumek kontatuko dute: gazteak, helduak eta zaharrak. Maitasunaren garai desberdinetan daude, eta emakume gazte ezkonberri eta maiteminduaren egunerokoa izango da hizpide. Egunetik egunera, gizonak hitz mingarri gehiago esango dizkio emakume gazteari, eta beste bi emakumeek aholkua eman nahiko diote, jada ezagun zaien egoeraren inguruan.

Klara Badiola, Ainhoa Aierbe, Ane Pinedo eta Jabi Barandiaran aktoreak ariko dira, bihar, oholtza gainean. HITZA

Sanjoanak bitarteko egitaraua

Udaberriak Tolosan emango duen kultur egitarau zabalaren lehen saioa izango da *Hitzak*.

Izan ere, San Joan jaien inguru-ra bitarte, Leidor aretoko eta Topic zentroko oholtzek hartuko dituzte ia ikuskizun gehienak.

Zerkausia eta Trianguloa plaza ere, azoka berezi eta jardueren plaza izango dira, urteroko moduan, eta azkenik, Aranburu jauregiak arteari gordeko dizkio bere txokoak.

Horrela beraz, kulturzaleek izango dute zer entzun, ikusi eta gozatua, urtaro berriarekin batera.

Udaberriko kultur egitaraua Tolosan

APIRILAK 12, BIHAR

- **20:30.** *Hitzak* antzezlana, Hika taldearen eskutik, Leidorren.

APIRILAK 19, OSTIRALA

- **20:30.** *Bi arreba.* Andoni Egaña eta Xabier Lizaso, Topic zentroko aretoan.

APIRILAK 20, LARUNBATA

- **18:30.** *Sialuk hartz txikiaren bidaia* Topic-en, En la lona taldearen eskutik, Topic-en.

APIRILAK 26, OSTIRALA

- **20:30.** *Benito Lertxundi kantatuz,* Et Incarnatus eta Lask abesbatza Leidorren. Kilometroak 2013k antolaturiko saioa izango da.

MAIATZAK 3, OSTIRALA

- **20:30.** *Publikoari gorroto,* Artedramaren eskutik, Leidorren.

MAIATZAK 10, OSTIRALA

- **20:30.** *Para lo que hay que vivir, mejor no morirse nunca* Gorka Otxoa eta Carla Hidalgoren eskutik, Leidor aretoan.

MAIATZAK 17, OSTIRALA

- **20:30.** Anje Duhalderen kontzertua, Leidorren, BERRIA egunkariaren 10. urteurreraren harira.

MAIATZAK 18, LARUNBATA

- **18:30.** *Munstruak*, Topic zentroko aretoan, Zipit taldearen eskutik.

MAIATZAK 24, OSTIRALA

- **22:30.** *Bonberenea Txaranga eta lagunak*, Sakramentinoetako patioan. KMK 2013k antolatuta.

MAIATZAK 25, LARUNBATA

- **17:00.** Hipo eta Tomax pailazoak Leidorren. Minbiziaren Aurkako Elkarteak antolatuta.

MAIATZAK 25-EKAINAK 2

- *Musikaria* astea Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolak antolatuta.

MAIATZAK 26, IGANDEA

- **12:00.** Udaberri dantza taldeko ikasleen ikasturte amaierako emanaldia, Leidorren.

MAIATZAK 31, OSTIRALA

- Eskolarteko Bertso Txapelketa, Leidorren. Kilometroak 2013k antolatuta.

EKAINAK 8, LARUNBATA

- **18:30.** *Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamia* Topic-en, Txotxongilo taldearen eskutik.

EKAINAK 14, OSTIRALA

- **20:30.** *Inopias* antzezlana Leidorren, Tolosako Tic Tac antzerki tailerraren eskutik.

EKAINAK 15, LARUNBATA

- **18:30.** Kultur etxeko dantza tailerraren emanaldia, Leidorren.

EKAINAK 21, OSTIRALA

- **20:30.** *Sortuko dira besteak* ikuskizuna, Leidorren. Euskal literatura eta musika uztartuko dituen saioa, besteak beste.

EKAINAK 24- 30

- Amarozko antzerki astea.

EKAINAK 28, OSTIRALA

- **20:30.** Leo Harlem-en *¿Qué hay de nuevo?* saioa, Leidorren.

EKAINAK 28 ETA 29

- Tolosand Blues.

BESTELAKOAK

- **Apirilak 18-25.** *Naturaldia.*
- **Apirilak 18-Maiatzak 11.** *Ura, ibaiak eta herriak* erakusketa Aranburu jauregian.
- **Apirilak 18-Maiatzak 11.** Ines Gonzalez de Zarate eta Loli Pinedo artisten zeramika erakusketa ikusgai izango da Aranburu jauregian.
- **Apirilak 26.** Ipuin txokoa Errota haur liburutegian.
- **Maiatzak 2-6.** Elkartasunezko merkatua.
- **Maiatzak 9.** Oriako barandila Zerkausian.
- **Maiatzak 16.** Bedaio auzoko Harri festa.
- **Maiatzak 17-Ekainak 8.** *Elkarreiko menpekotasunak* erakusketa Aranburu jauregian.
- **Maiatzak 17-Ekainak 16.** *Juan Gabriel Vic* erakusketa Aranburu jauregian.
- **Maiatzak 18-19.** Bedaio auzoko kultur astea.
- **Maiatzak 18.** Museoen Nazioarteko eguna.
- **Maiatzak 19-25.** *Ahora!* astea.
- **Maiatzak 24.** Ipuin Txokoa Errota hau liburutegian.
- **Maiatzak 25.** Txapin festa.
- **Maiatzak 31-Ekainak 2.** Artisautza azoka ikusgai izango da San Frantzisko pasealekuan.
- **Ekainak 1.** Lore eta landare azoka.
- **Ekainak 2.** Tolosako Musika Bandaren irteera.
- **Ekainak 9.** Alarde Napoleonikoa.
- **Ekainak 15.** Sanjoanetako azoka berezia.
- **Ekainak 24.** Tolosako Musika Bandaren San Joan eguneko kontzertua.
- **Ekainak 21-25.** San Joan jaiak.
- **Ekainak 28.** Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna.
- **Ekainak 28-30.** San Pedro jaiak Urkizu auzoan.

Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. Etxeko lanak egin, haurrak zaindu edota bestelako lanetarako, esperientziadun eta gidatzeko baimena duen emakumeak bere burua eskaintzen du. 600 52 21 33.

Autobus gidaria. Edozein lanetarako, esperientziadun eta autobusa gidatzeko baimena duen gizonak bere burua eskaintzen du. 677 88 42 78..

LAN ESKAINTZA

Emakume zerbitzaria. Jatetxe batean zerbitzari lanak egiteko, esperientziadun emakumea behar da. Interesatuek, curriculuma Tolosako Correos bulegoko 20. posta kutxatilan utzi.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

1988. urtean du jatorria Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Bi eskualdeetako 17 herri kide ziren jada, eta Tolosa gehitu berri zaio, euskara gizarte-hizkuntza nagusia izatea helburu duen egitasmoari

Euskararen arnasguneen mapa

Itzea Urkizu

Euskal Herrian Euskaraz elkartearen ekimenez abiarazi zen, 1988. urtean, Udalerri Euskaldunen Mugimendua. Bertan, 30 udalerri euskaldunek *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegia* onartu zuten, herri horietako eremu guztietan euskaraz bizi ahal izateko bitartekoak jartzeko helburuz; euskararen arnasguneen mapa osatuz

Lehenago ere bazen, udalerri euskaldunetan euskara hutsean funtzionatzea ahalbidetzen zuen lege-artikulu bat: Eusko Jaurlaritzak emandako 10/1982 Euskararen Legeko 8.3 artikulua hain zuzen. Artikulu hau, ordea, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak indargabetu zuen. Gauzak horrela, eta 1988ko arautegiaren ondorio gisa, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, UEMA, sortu zen 1991ean.

Besteak beste, erakunde publikoetan euskara nagusitzeko lanean aritu da UEMA: «Hizkuntza politika aurrerakoiak sustatzen ditu UEMAk, erakunde publikoetatik bultzatzen den elebitasun politikek ez dietelako kide diren herrietako errealitate soziolinguistikoei erantzuten», diote arduradunek.

Helburu horiek lortzeko, trebakuntzan, dokumentuen normalizazioan, kontratazioetako hizkuntza irizpideak zehazten, euskarazko aplikazio informatikoak lortzen, merkatariei eta tabernariei euskara zerbitzuak eskaintzen, tokian tokiko euskalgintzarekin harremanak sendotzen nahiz udal euskara zerbitzurik ez duten herri txikienetan, zerbitzu hori bermatzen aritzen da UEMA.

17 herri, euskararen mapan

Euskal Herriko 69 herrik osatzen dute UEMA, eta horietatik 17 dira, Tolosaldeko eta Leitzaldekoak; biztanleen %70ak, gutxienez, euskalduna behar du izan, UEMAkide izateko.

Tolosan, larunbateroko azoka izan ohi da euskararen arnasguneetako bat. A. IMAZ

Pasa den martxoaren 21ean sartu zen Tolosa, Zarautz, Lesaka, Munitibar eta Lekeitiorekin batera, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, eta UEMAko herririk handienetakoa da orain.

Herri euskaldun guztiek bat egin eta hizkuntza politikan sinergiak sortze horretan, Tolosarekin batera, Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Orexa ere UEMAkide dira. Leitzaldean, berriz, Areso eta Leitza ere udalerri euskaldunen mapan daude.

Iñaki Azaldegi • Tolosako Udaleko euskara teknikaria

«Jarrerak euskaltzaletu egin behar ditugu»

I. Urkizu Tolosa

Tolosarren euskalduntzeak aurrerapauso handiak eman ditu azken hamarkadetan. Gaur egun, gazteen jarreretan kontzientzia sortzeari garrantzia eman dio Tolosako Udaleko euskara teknikaria den Iñaki Azaldegik.

Tolosa UEMAn sartu berri da. Zer ekarriko dio horrek herriari?

Lehendik datorren euskalduntze prozesuari jarraipen sendoagoa ematea da. Udal euskaltegia duela 32 urte sortu zen, eta urte pare bat lehenago bazen, jada, euskara zerbitzu bat. Garai hartan hasi zen euskalduntze prozesua udalean, eta herritarren artean lehenago: ikastola duela 40 urte baino gehiago sortu zen, eta baita AEK ere, udal euskaltegiaren aurretik gau eskolak izan, bazirelako.

Hori guztia indartuko du, beraz.

UEMAn sartzeak bultzada bat emango dio prozesu horri, baina egun batetik bestera salto ikaragarria ere ez dugu joko. Euskara Tolosako gizarte bizitza osoan, udalean, enpresetan, merkataritzan eta ostalaritzan nahiz elkarteetan, hizkuntza nagusia izatea nahi dugu. Horretara iristeko, pauso eraginkorra da UEMAn sartzea, gure ustez; guk gauza on bat izango dela uste dugu, baina hizkuntzen aldaketa ez da ematen egun batetik bestera, horrek bere denbora behar du.

Euskalduntze prozesu horretan zein behar eta zein gabezia ditu Tolosak?

Edozein hizkuntza hitz egiteko, guztiek ulertu egin behar dute, gutxienez, hizkuntza hori. Elebitasun pasiboa, ulertzen duenari euskaraz egitea da, berak erdaraz erantzunda ere. Baina Tolosan elebitasun pasiboa erabiltzen ez dugunez, euskaldunak ere erdaraz egiten du. Orduan, ahulezia handienetako bat euskalduntze prozesua orokortzea da, hau da, denak euskaldunak izatea. Hori gertatzen denean, euskaldunak arazorik gabe erabili ahal izango du euskara, leku guztietan.

Erdaldun elebakarrek eragin handia dute horretan?

Oraindik 3.000 lagun erdaldun ditugu Tolosan, erdaldun petoak. Hizkuntza bat ez dakiten 3.000 lagun baldin badaude, eta gainerako guztiek haien hizkuntza baldin badakite, noski, elebakar horiek dira besteei beren hizkuntza inposatzen dietenak. 3.000 lagun asko dira, eta toki askotan egoten dira: kuadriletan, elkarteetan, lantokian, kalean,... Horrek asko baldintzatzen du euskararen erabilera.

Euskara jakin eta erabiltzen ez duenik ere bada.

Bai, badira beste 3.000 inguru, eta praktikan, erdaldunak dira beren bizitzaren zatirik handienean. Behar bada bilobekin-eta, beti erdaraz hitz egiten duten aitonamonek, erabiltzen dute. Tartean heldu bat sartzen denean, ordea, gaztelerara jotzen dute segituan, erosoago daudelako. Hau ulergarria da: finean, gizakiok erosotasunera jotzen dugu. Norberak primeran erabiltzen duen tresna bat baldin badauka, eta horrekin batera, beste tresna bat kamutskamuts baldin badauka, eta honekin erdipurdi eta lotsatuta aritzen bada, normala da lehena erabiltzea. Hizkuntza egoki dakienak erabiltzen du, gaur egun, Tolosan eta Euskal Herrian, eta horixe da beste erronka, hain ondo ez dakitenak ere erabiltzen hastea; hitz eginez ikasiko baitute, ez da beste biderik.

Euskaldun zaharrek trebatze horretan lagun dezakete?

Bai. Onartu egin behar ditugu 'hankasartzeak', eta hizketan normal jarraitu, zuzentzaile zorrotzarena egiten ibili gabe; animatu egin behar ditugu euskaraz egitera, hankasartzeak hankasartze.

Kontzientziazio lanean lagunduko du, beraz, UEMAk.

Euskara hizkuntza nagusi bilakatzeko denbora beharko da, baina aurrerapausoak eman behar dira, UEMAren tresnen bidez. Zer gertatzen da? Batzuk euskaltzaleak garela, eta euskaraz bizi nahi dugula. Beste batzuk, berriz, euskaldunak dira, eta ez zaie gehiegi axola bat edo beste erabiltzea. Azken hauek euskaltzale bihur daitezke, eta euskaraz egitera bultza. Beste sektore bat ere bada, euskararen aurka dagoena. Horiek, neurri batean, jarrera zibilizatu batera ekartzea lortu behar dugu, euskaraz egiten utz diezaguten.

Gazte tolosarrek zein leku betetzen dute erabileraren mapan?

Aldaketa kualitatibo handia gertatu da, Tolosan, azken urteotan; 1981etik honako datuak Euskal Herriko onenetakoak izan daitezke. 1981ean, 24 urte bitarteko haur eta gazteen erabilera %12aren bueltan zebilen. Gaur egun, 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoak %65en bueltan dabiltza, eta gazteen %45-50ak erabiltzen du euskara.

Euskalduntze prozesua bide onetik doa, beraz, Tolosan.

Egia da, duela 10 urte euskara gehiago erabiltzen zela ume eta gazteen artean, eta D ereduak azken urteotan izandako aurrerakadak, gaur egunerako erabilera altuagoa aurreikustera eraman gaituela. Hala ere, gaur egun ezin da esan adin horretako tolosarrek euskaraz ez dakitenik. Beraz, euskalduntzeko lana ere, errazagoa da: jarrerak euskaltzaletu behar ditugu. Konbentzitu behar ditugu, euskara erabiltzeko dela, eta Euskal Herria izango bada, euskara erabiltzen dugulako izango dela, eta bestela ez dela izango, alferrik ari garela. Hemen, bagara edo ez gara, eta hori hizkuntzak egingo du, ez kaikua edo txapela janzteak. Beraz, kezkatzen gaituzten gauza batzuk badiren arren, konponbidea hizkuntza ohiturak aldaraztea da, euskaraz jakin badakitelako; eta hori hizkuntza ikasi behar izatea baino errazagoa da. Gurera ekarri behar ditugu, goxo-goxo.

> «Tolosan, 1981etik honako datuak Euskal Herriko onenetakoak izan daitezke»

Joxan Lizarribar «gizon osoa eta elegantea» zela diote gertukoek

Otamendi, Cano, Otamendi eta Lizarribarren semea, atzo beilatokian. G.R.

Gaur emango diote azken agurra Joxan Lizarribarri; hileta elizkizuna Donostiako Ibaeta auzoan izango da

Erredakzioa

Joxan Lizarribar altzotarraz hitz egiterako unean, «gizon osoa eta elegantea» bezalako hitzak errepikatzen dituzte behin eta berriz hura ezagutu, eta harekin harremana izan zutenek. Lizarribar, Berria Taldeko presidentea eta Adunako Kelsen enpresako zuzendari nagusia zen, eta gaixo egon ostean, herenegun zendu zen. Euskarak eta euskal kulturak jasan duen galera azpimarratu dute arlo horretan berarekin elkar lanean ibilitakoek, eta herritarrek, altzotar bat galdu dutela diote, nahiz eta hori horrela den sinistea kosta egiten zaien. Hura ezagutu izana harrotasunez azaltzen dute, eta hark utzitako hutsuneak samina sortzen die: «Oraindik emateko zeukan guztiagatik».

Gorpu-beila eta hileta

Joxan Lizarribarri gaur emango diote azken agurra. Bere omenezko hileta elizkizuna gaur egingo dute, 19:00etan, Donostiako Ibaeta auzoko Espiritu Santua elizan. Gorpu-beila atzo zabaldu zuten Errekalde auzoko beilatokian, eta gaur, 13:15ak bitarte zabalik egongo da.

Gorpu-beila zabaldu orduko, jende ugari gerturatu zen Errekaldera. *Berria*-ko, euskal kulturgintzako, Kelsen lantegiko eta politika munduko ordezkariak senide eta lagunekin elkartu ziren bertan. Lagun min batek zioen bezala: «Lagunak konpartitzea gustatzen zitzaion».

↓ Erreakzioak

Jaime Otamendi
Kazetaria

«Euskal Herria munduan jartzen lagundu zidan, eta munduaren ikuspegi bat eman zidan. Izugarri estimatuko diot hori. Bestetik, euskaldun eta unibertsal izaten irakatsi zidan. Horrez gain, sekulako laguna izan da, eta bizitzako gauza mordoa ikasi ditut berarekin. Anai zaharrago bat bezala izan da, bizitzako gauza asko galdetzen nizkion eta bidea irekitzen zidan. Zulo handia uzten du».

Andoni Mendiola
Adunako Kelsen lantegiko lankidea

«Denbora asko pasa dugu elkarrekin. Une txar eta on asko. Berarengandik asko ikasi dugu. Joxan izugarri eskuzabala izan da bizi guztian zehar. Dena eman du inork eskatzen ez zionean, eta horrek izugarrizko marka utziko du lankide, lagun eta familiarengan».

Jexux Murua
Laguna

«Artzamitarteko Joxeantonio zen guretzat, artean oso gaxte Altzotik joan bazen ere. Aldian aldian, nahikoa maiz, etortzen zen gurera eta irribarrea zabal ibiltzen zen, elegante, elegantea baitzen kanpo-barruz. Ez zuen Altzorekiko lotura galdu, eta altzotarra zela esango zion galdezka zetorkion edonori. Bazterrik bazter hainbeste ibili arren, sustraira beti. Euskal Herria sakon-sakonean bizi zuen eta sekulako fedea zuen honen indarrean eta etorkizunean. Hala zioen: 'Herrien txiki-handitasuna ez duk geografiaren arabera neurtu behar. Gureaz harro egon behar diagu; gure herria ikaragarri zaharra duk eta ikaragarri gaztea aldi berean. Herri gazterik bada Europan, Euskal Herria duk'. Joxeani zerion baikortasuna da niri iltzatua geratu zaidana. Min dut beragatik, bere sendiko eta lagun guztiengatik, lankideengatik... emateko zeukan guztiagatik».

Marian Galarraga
Tinko Euskara Elkarteko lehendakaria

«Harreman pertsonala nuen berarekin. Euskal zaletasuna elkar banatzen genuen. Alderdi horretatik ere, kideak ginen. Joxan asko maite nuen. Oraintxe, berari buruz hitz egiten ari naiz, baina ez dut onartzen hilda dagoenik, ez dudala gehiago ikusiko. Nahiz eta bi hilabetean behin, edo urtean behin ikusi, oso pozgarria zen berarekin elkartzea. Alde guztietatik begiratuta, gizon elegantea zen; atsegina. Altzotarrak eta auzotarrak ginen txiki txikitatik. Gero, 40 urte pasa ondoren, berriro elkartu ginen, heldutasunean, mundua ikuspuntu berdinetik ikusten genuen. Ezin dut sinetsi. Berriro laster ikusiko dudala pentsatzen dut, irribarretsu».

Agustin Amiano
Irakaslea

«Niretzako gizon dotore bat zen, zentzu guztietan. Jendearekin tratuan ere halaxe zen. Herritik kanpora joan zen bizitzera, baina bere bueltaxkak egiten zituen, eta beti sumatu izan dut denekin hizketan, denekin jator, denekin aurpegi ona. Traturako oso pertsona ona zen, balio zuena. Bestalde, bere konpromisoa aipatu nahiko nuke: momentu zail horietan nola hartu zuen kargua Berria Taldean; euskararekin eta kulturarekin erabat konprometituta egon izan da. Pertsona baliotsua joan zaigu, zalantzarik gabe, oso garrantzitsua».

Loli Arandia
Laguna

«Altzotar bezala ibili da munduan. Jaioterriaz harro sentitzen zen, eta gu harro sentitzen gara bere lagun izan garelako, eta bera altzotar izan delako. Joxan gizon osoa zen. Lagunak biltzeko ere aparta zen; bere ondoan biltzen ginen. Beilatokian, adibidez, jende ugari ikusi dut, eta denak bere bitartez ezagutzen nituen; lagunak konpartitzea gustatzen zitzaion. Euskararekin konprometitua zela diote orain, eta bai, horrela zen, baina ez euskararekin bakarrik, familiarekin, lagunekin eta inguruko guztiarekin zen horrela. Beti hor zegoen; denentzat zuen denbora. Zaila egiten zait bera nolakoa zen pentsatu behar izatea. Joxan oso barruan daukat, eta oso barruan sentituko dut beti. Beti hor egongo da. Beti».

Xabier Olano
Gipuzkoako Ogasun zuzendaria

«Zortea izan nuen oso haurtzaroan ezagutu ginelako elkar. Gure baserriak elkarren ondoan zeuden, eta gurasoak lanean zeuden bitartean, gu jolasean ibiltzen ginen. Gaztetan Hernanira joan ziren bizitzera, eta gero, bizitzan zehar, leku askotan egin dugu topo. Euskararen eta kulturaren ekintzailea zen, eta ni ere esparru horretan ibilia naizenez, elkarlanean askotan ibili ginen. Joxan oso pertsona gozoa zen, oso langilea. Definitu beharko banu, gizon osoa zela esango nuke».

Pilar Zubiarrain
Abokatua

«Arlo pertsonalean ezagutzen nuen, senidea bainuen. Familian izugarrizko samina utzi du. Izugarri ukitu nau bere heriotzak. Zoragarria zen. Pena ematen dizu pertsona on bat joan delako, kategoriako pertsona. Beti irribarrez, beti denei agurtu eta hitz egiten zien; behin ere ez zuen aurpegi txar bat edo jarrera txar bat».

Eta Washingtongoa zer?

Iritzia

Martxelo Otamendi
BERRIA-ko zuzendaria

Faena ederra egin diguzu, Joxan; Washingtonen enbaxada zabaltzeko gero eta gertuago geundenean, esan diguzu enbaxada hori ez eta eternitatearen enbaxada hartuko duzula, lurrekoa baino nahiago duzula, enbaxada hartzekotan, Etereolandakoa hartu. Nork eta zuk, gure artean zehatza eta praktikorik egon bada zeu izan zarenean. Ulertzen dut enbaxada horretan osatu ahal izango duzun lantaldea lehen mailakoa dela, ikaragarri estimagarria izan behar duelako Joxemi Zumalabe, Joseba Jaka, Martin Ugalde, Txillardegi eta aurretik joan zaizkigun agregatu eredugarriekin lan egitea. Zeu enbaxadore. Urrezko taldea osatuko duzu horiekin, baldin eta bakoitza berean zentratzea lortzen baduzu; zuk horrenbeste gorrotatzen dituzun Bizantzioko eztabaida alfer, amaigabe eta loarazleak bazter utzita. New Yorkekoa eta Washintongoa bata bestearen atzetik zabaltzeko asmotan geunden; nagusia lehendabizi, hiriburukoa, eta handik gutxira NBEkoa, New Yorken. Orain dudatan utzi nauzu New Yorkekoa hartu edo ez, biak, bi enbaxadoreak, pakete batean zihoazen, gindoazen; eta, egia esan, ez daukat gogo handirik enbaxadore lana egiteko zure gertuko maisutza gabe. Ikusiko dugu.

Bitartean, zuk askotan esan bezala, hobe dugu espabilatzea: goazen martxan, ez enbaxada eta ez ondoko txakur txabola. Ilusio handiarekin hartu zenuen garai politiko berria, baikor, hamarkadetan eduki ez dugun abagune ikusten zenuelako. Aukera Euskal Herrian, eta kanpoan. Gurean abertzaleen gorakadak itxaropenerako arrazoiak ematen dituelako. Eta kanpo hurbilean, aspaldi ez bezala, inoiz ez bezala igual? Europako nazio historiko batzuetan — Eskozia, Flandria, Herrialde Katalanak—, oso serio hartzen ari zirelako independentziarako bidea. Serio, alegia, sendo, indartsu, dudarik gabe.

«Ez liatu autodeterminazio eskubidearekin: estatu bat behar dugu. Mundu guztiak ulertzen du estatua esaten dugunean; autodeterminazio eskubidearekin, bakoitzak nahi duena ulertzen du. Ez liatu: besteek bezala, estatu bat behar dugu. Ez liatu». Hori zen zure pentsamendu argia.

Gogoratzen duzu nola pasatu genituen 45 minutu «premtsa si us plau» akitzeraino esanez, Bartzelonako iazko Diadaren manifestazio erraldoi hartan, metro geltokitik atera eta manifestazioak irten behar zuen lekuraino? Non ikusi da egunkari bateko lehendakari bat, kazetari kredentziala paparrean jarrita, 45 minutu bultzakadak jasoz? Erredakziotik kanpo aurreneko aldiz kalera erreportajea egitera irten den kazetari hasiberriaren ilusioarekin ibili zinen manifestazioaren buruan, gonbidatu OPIen esparruan, euskaldun askorentzat beste aberria den Kataluniarentzat egun handia zela sumatuta. Ikusiko dugu nolako bilakaera daukan katalanen ahaleginak, baina konbentzituta etorri zinen han prozesu garrantzitsua ari zela sendotzen eta abiatzen, zuk horren ondo ezagutzen zenuen Katalunia ez zenuela sekula horren indartsu ikusi.

Oso garai txarrean zaildutako belaunaldiko kidea izan zara, Joxan; dena aurka eduki eta, hala ere, gure herriarentzat horren garrantzitsuak izan ziren hurrengo urteetarako adreilu erregogorrak jartzea egokitu zitzaion gazte multzo eredugarrian jardun zenuen. Zorretan gaude zurekin, eta hor nonbait topatuko dituzun joandako aitzindariekin. Eman eskuminak eta esan bukatuko dugula lana.

Asier Izagirre ▸ Eskalatzaile-alpinista

Amezketan Mendi Astea 2013 burutzen ari dira, Buruntzunzin Mendi Elkarteak antolatuta. Gaur, 20:00etan, Asier Izagirre eskalatzailearen bideo emanaldia ikusteko aukera egongo da

«Berriro eskalatzen hasteko motibazioa izango da emanaldia»

Asier Imaz Amezketa

Sustraietara itzuliko da gaur Asier Izagirre (Tolosa, 1972), Amezketan; esanahi sinboliko ugari dituen emanaldia eskainiko du kultur etxean, 20:00etan.

Tolosarra, Amezketan murgildu zen eskalada munduan, Zazpi Iturriko harkaitzetan; Himalaiako proiektuak albo batera utzita, hastapenen inguruko hitzaldia eskainiko du Mendi Astearen barruan, hau da, eskaladari buruzkoa, eta hori nahikoa ez balitz, gaurko proiekzioa hastapen berri bat izan daiteke Izagirrerentzat. Amezketa-Izagirre binomioaren urrats berria ikusi nahi duenak, *Patagonian zehar* emanaldira joatea nahikoa izango du.

Pasioa eta ilusioa transmititzen ditu Asier Izagirrek mendiaz hitz egiten duenean, modu zuzen eta garbian gainera. Bere hitzak entzunda mendira joateko gogoa sartzen ez zaionari...

Zein elementu izango ditu Mendi Astearen barruan eskainiko duzun emanaldiak?

2000n, 2004an eta 2005ean Patagoniara joan nintzen eskalatzera, eta bertako irudiekin pelikula moduko bat egin nuen. Argazkiak eta bideoak ditu, eta emanaldia DVD horren inguruan joango da.

Zenbateko iraupena dauka proiekzioak?

45 minutu ingurukoa.

Emanaldiaren ostean etorriko al dira azalpenak eta galdera-erantzunak?

Proiekzioan bertan joango naiz azalpenak ematen, izan ere, momentu batzuetan soinuarekin baldin badago ere, tarte gehienetan isila izango da, eta une horietan hitz egiteko aukera izango dut. Proiekzio guztian, beraz, nire hasierak zeintzuk izan ziren, Patagoniara egindako bidaiak... azalduko ditut.

Eskalatzaile moduan izan ziren hasiera haiek.

Eskalatzailea izanik, Patagoniara eskalatzera joan nintzen. Ondoren, *Himalayista* bezala ezagunago bihurtu naiz, baina pixka bat hortik joango da emanaldia: nire hastapenak zeintzuk izan ziren, eta ondorengo bilakaera nolakoa izan den azalduko dut.

Nola kokatzen duzu zure burua, mendigoizale bezala edo eskalatzaile moduan?

Eskalatzaile edo alpinista bezala. Azken finean, alpinismoa mendiarekin lotutako guzti hori da, eta eskalada, barruan hartzen duen modalitate bat; ondorioz, eskalatzaile-alpinista.

Nola moldatu zineten DVDean ikusten diren irudiak lortzeko?

Garai hartan gure kamera eta bideo kamerekin grabatzen genituen irudiak. Ez daude formatu handian edo egun ikusten ditugun pelikula horien moduan grabatuta; proiekzio normala dela esango nuke, gure neurrian eta moduan egina.

Patagoniako zein ingurutan hartu zenituzten irudi horiek?

Hiru urte haietan hiru bidaia egin genituen Patagoniara, baina ez ginen Cerro Torre bezalako leku ezagunetara joan. Bakardadea, edo abentura kutxuko bidaiak izan ziren, leku desberdinak ezagutzeko gogoa baikenuen. Cochamo, Torres del Brujo eta Torre Avellano-ko irudiak dira.

Nazioarteko esperientzien hasiera?

Euskal Herrian eta Pirinioetan ibiltzen ginen eskalatzen, eta pixka bat, urrats moduko bat izan zen Ameriketarako bidaia hori. Pareta handiak eta abentura bilatzeko nahia genuenez, urrats hori ematea erabaki genuen.

Eta Amezketan, hastapen horietaz mintzatuko zara.

Bai, eta gogotsu nago gainera. Himalaiako boom hori, eta Edurne Pasabanekin egindako bidea amaitu da, eta hastapenetara itzulera moduko bat izango da. Horretaz hitz egiteaz gain, espero dut niretzat ere eskaladara itzultzeko modu bat izatea.

Azaltzen duzun moduan, deseatzen zaudela dirudi.

Amezketan eskainiko dudan proiekzioa prestatzen hasi nintzenean, irudi zaharrak ikusten hasi nintzen etxean emaztearekin. Oroitzapenekin eta irudiekin emozionaturik gelditu nintzen. Zenbat denbora grabaketa haiek ikusi gabe! Nolako oroitzapen politak eta gogoa! Nik uste, kontatzen hasten naizenean emozio hori nabaritu egingo zaidala.

Azken urte hauetako zure mendi ibilbidea boom moduko bat izan da. Amezketatik deitu zizutenean, errazena Himalaiaren inguruko zerbait eskatzea izango zen, ezta?

Iaz ere Amezketan izan nintzen nire sei zortzi milakoen inguruan hitz egiten. Aurten, deitu zidatenean, zerbait desberdina bota zitekeela pentsatu nuen. Azken espedizioaren inguruko zerbait eskaintzeko aukera egon bazegoen, baina beti Himalaia gora eta Himalaia behera... badaude mendiarekin lotutako beste hainbat eskaintza polit. Eskaladaren inguruan emanaldi bat eskaintzeak poz handia ematen zidanez, hori proposatu nien, eta aurrera.

Horrela azalduz gero...

Gauzak azaltzerakoan nahiko garbia naizela esaten didate, eta hitzekin pasioa transmititzea asko gustatzen zait. Momentu honetan, nahiz eta zaharra ez sentitu, gure esperientziak eta gure pasioak jende gazteagoari transmititzea tokatzen zaigula uste dut, eta hori oso garrantzitsua delakoan nago. Tolosan mendi elkartean txikitatik nabil, eta bertan pasa zidaten grina hori, eta orain, lan hori egitea niri tokatzen zaidala uste dut.

> «2000n, 2004an eta 2005ean Patagoniara egindako bidaien inguruko proiekzioa da»

> «Emanaldirako gogotsu nago; hastapenetara itzulera moduko bat izango da»

> «Azken espedizioak amaitu ondoren, menditik pixka bat aldenduta nabil»

Mendi Astea bezalako ekimenek zer suposatzen dute zuretzat?

Primeran iruditzen zait; egin beharreko gauzak dira nire ustez. Tolosarra izanik, Amezketan ikasi nuen eskalatzen, Zazpi Iturriko harkaitzetan. Orain, berriro Amezketatik deitzea oso polita da niretzat. Askotan, nabaritzen duzu beraiek erreparo moduko batekin deitzen dizutela: «Asier Himalaian egon da eta etorriko al da Amezketara?». Gu jende normala gara, eta askotan ilusio gehiago egiten digu herri txikietatik deitzen digutenean, ekitaldi handietatik baino. Ni behintzat oso gustura sentitzen naiz horrelako emanaldietan.

Azken aldian Asier Izagirreren berririk ez dugu izan: zertan dabil?

Asier Izagirre azken espedizioak amaituta menditik pixka bat aldendu da, aitatxo izan baita. Hori izan da azken denboraldiko espedizioa. Urte oso intentsuak bizi izan ditut, eskalatzen eta abenturan, eta orain, azken urte t'erdian lasaiago nabil. Haurrarekin eta familiarekin gozatzeko eta denbora gehiago egoteko aprobetxatu dut.

Aurrera begira, zerbait ba al daukazu buruan?

Lehenik eta behin, Amezketako emanaldia. Berriz eskalatzen eta entrenatzen hasteko data eta motibazioa izango dela uste dut. Proiekziorako argazkiak eta irudiak ikusten hasi nintzenean lagun bati esan nion, berriro ere eskalatzen eta... hasi behar genuela.

Asier Izagirre Patagoniako Torre Avellanon, 2005an. HITZA

GAURKO ESKAINTZA
Mauka berria
Sekulako menua
Xarma jatetxean
XARMA JATETXEA
Tolosa hiribidea, 123
TOLOSA 20018 - GIPUZKOA
Tel.: 636 904 717
www.xarmajatetxea.com
Prezioa 39,5€
www.mauka.eu
berria taldea

Herriko gazteak utzikerian erori ez direla erakusteko helburuarekin hasi ziren lanean Asteasuko Matxintxulo Gazte Asanbladako kideak. Urte bat bete dute bide horretan, eta ospakizunetan dira

Urte bat gazteak altxatu nahian

Mikel Iraola Asteasu

Urte bat pasa da Asteasuko hainbat gazteren ametsetako bat errealitate bihurtu zenetik. 2012ko apirilaren 14 hartan ireki ziren lehen aldiz Matxintxulo Gaztetxearen ateak.

Herriko txokorik kuttunenetako bati egiten omen dio erreferentzia gaztetxearen izenak: beheko bailarako pabiloien inguruan dagoen iturriari. Urtebeteren, ondoren, iturriaz gain, gaztetxeak ere hartu du lekua beren toki gogokoenetakoen artean.

Herriko gazteak bildu, beren sormena landu, elkarren artean egon, eta ekimenak antolatzeko leku baten beharrean zeudela ikusita, udalari lokal bat uzteko eskaera egin zieten gazteek. Hainbat saiakeren ondoren, joan den urtean jaso zuten erantzuna. Udalak, Elizmendi auzoko Santa Krutz ermitaren ondoan dagoen lokal bat utzi zien, ordura bitarte, haur eskola izandakoa zena. Paretak pintatu, zertxobait txukundu, eta lanean jarri ziren.

Apirilaren 14an antolatu zuten inaugurazio ekitaldia. Mus txapelketa, triki-poteoa, afaria eta kontzertuak egin zituzten egun berezi hartarako, eta *Gaztien Goooooola pasotismoari!* leloa ezarri zioten egunari. Lehen gola egun hartan sartu bazuten ere, segituan beren atean sartu zuten beste bat. «Ilusio handiz hasi ginen lanean. Utzikeriaren aurka borrokatuz. Baina beharbada gogo gehiegirekin hasi ginen, izan ere, segituan beherakadatxo bat izan genuen, eta iniziatiba faltarekin izan ginen», azaldu du Julen Sarasola, gaztetxeko kideak.

Harrera ona herrian

Egoera hartaz jabetu, eta berriz ere suspertu zirela dio Sarasolak. «Herriko eta bailarako elkarteak laguntza eske etorri ziren, eta bolondres moduan hasi ginen hauek behar zutenerako. Adibidez, Aiztondo klasikoan, bidegurutzeetan izan ginen». Beranduago, frontenis txapelketa antolatu zuten, festetan txosna jarri zuten, akelarrea egin zuten plazan, eta beste hainbat ekimen egin zituzten. EBIA kultur elkartearekin ere elkarlanean aritzen dira batak ala besteak behar duenean.

Matxintxuloko gazteak, Villabonako areto futbol txapelketan parte hartu ondoren. MATXINTXULO GAZTETXEA

> Ilusio handiz hasi ginen lanean, eta herriko gazteen jarrera ona dela erakutsi nahi dugu»
> **JULEN SARASOLA**
> Gaztetxeko kidea

Ekimen horiekin, pixkanaka «herritarren konfiantza irabazten» joan direla dio Sarasolak. «Akelarrearekin ikusi zuten askok, intentzio onak genituela. Asko gustatu zen herrian».

Orain argi dute partida irabazteko hori dela jarraitu beharreko bidea: «Asteasuko gazteriaren jarrera ona dela erakutsi nahi dugu, ez garela utzikerian erori, eta herria aurrera atera nahi dugula, gu baikara etorkizuna. Eta hori demostratu nahi diogu herriari».

Akelarrea egin zuten herriko plazan. MATXINTXULO GAZTETXEA

Elizmendi auzoko Santa Krutz ermitaren ondoan dago Gaztetxea. M. IRAOLA

Gazte gehiago altxatu nahian

Herriari bakarrik ez, inguruko gazte gehiagorengana ere iritsi nahi dute. «Edonor animatzen dugu asanbladara etorri, ideiak bota eta gauzak egiten laguntzera», dio Sarasolak.

Gaur egun, 16 eta 25 urte bitarteko hogei bat lagun biltzen dira gaztetxean. «Astean zehar, batzuk kanpoan ikasten dutenez ia inor ez da ibiltzen, baina astebururuetan, herriko gazte gehienak bertan gaude». Asteburu honetan, seguraski, denak izango dira. Inork ez du hutsik egingo. Asko dute ospatzeko. Egun borobila antolatu dute, bertsolari, bazkari, trikitilari, kontzertu eta gutzi. Hori dena, gazteak mugiarazteko nahian lanean jarri zirela, urte bat bete dela ospatzeko.

> Datorren larunbatean, egun osoan zehar ospatuko dute lehen urteurren ekitaldia

↓ Egitaraua

GAZTETXEKO I. URTEMUGA

- **14:30.** Bertso bazkaria Unai Mendizabal eta Adur Gorostidi bertsolariekin Erretore etxean. Bazkarirako tiketak, salgai daude Patxine jatetxean 15 euroko salneurrian.
- **18:00.** Erromeria herriko trikitilariekin Gaztetxean, eta ondoren, kalejira herriko tabernetan zehar.
- **Arratsalde osoan zehar.** Aizkolariak, frontoian
- **23:00.** Gorkore, Euskalyptus eta Ingo al deu? taldeen kontzertuak gaztetxean. Ondoren, musika goizaldera arte.

Atentatua asmatu zuen guardia zibilari zigorra berretsi diote

Lau hilabeteko kartzela zigorra ezarri diote, Leitzan 2009an atentatu baten biktima izan zela asmatzeagatik

Iñigo Terradillos Leitza

Nafarroako Auzitegiak lau hilabeteko kartzela zigorra berretsi du Leitzan 2009ko azaroan ETAren atentatu baten biktima izan zela asmatu zuen guardia zibilarentzat. Auzitegiak, beraz, ez du onartu Iruñeko hirugarren Zigor Epaitegiak 2012ko ekainean ezarri zion sententziaren aurka defentsak jarri zuen helegitea.

Salvador Melendez guardia zibilari ezarritako sententzia, ondorioz, irmoa da. Delitu simulazio saiakera eta desordena publikoak egin izana egotzi diote, eta lau hilabeteko espetxe zigorra eta 360 euroko isuna ordaintzera zigortu dute.

2012ko urtarrilean epaitu zuten Melendez. Epaileari onartu zion 2009ko azaroaren 30ean, bere buruari egin ziola tiro, eta atentatu baten biktima izan zela esan zuela. Kuarteleko bere kideei besoan tirokatu zutela esan zien, eta topatu zuen materialaren berri eman zien. Material hori berak bertan jarria izan zela ere onartu zuen. Fiskalak delitua gertatu izanaren itxura egitea eta desordena publikoa egotzi zizkion, eta horregatik, zortzi hilabeteko kartzela zigorra eta 2.400 euroko isuna eskatu zituen. Melendezen abokatuak, bestalde, deliturik ez zegoela argudiatu, eta absoluzioa eskatu zuen, eta deliturik egotekotan, berriz, isuna ezartzeko eskatu zuen.

leitzaldea@hitza.info

Maxurrenea udalari itzultzea eskatzeko sinadura bilketa abian

Leitzako tabernetan, udal bulegoetan eta dendetan egin daiteke; elkarretaratzea egingo dute hilaren 22an

I. Terradillos Leitza

Maxurrenea Herrintzat plataformak jarri berri du abian Leitzako Maxurrenea eraikina herriari bueltatzea eskatzeko sinadura bilketa. Sinadurak herriko taberna eta komertzioetan, zein udal bulegoetan bilduko dituzte, eta horrez gain, krosaren egunean zein Kultur Asteko bi igandeetan mahaia jarriko dute Leitzako plazan.

Hain zuzen ere, Torrea herrikoa, Gaztañaga, Landaberri, Peritza, Txoko, Musunzar, Adur, Leitzarra, Beatrizenea, Zortziko, Ogiberri eta Zirkulo tabernatan udaletxean eta liburutegian, Maimur eta Astiz liburudendatan, Sarrio lantegian eta gaztetxean jarri dute sinatzeko aukera.

Leitzako Sortuk bat egin du sinadura bilketarekin, eta herritar guztiak deitu dituzte sinatzera. Sinadura bilketaz gain, hilaren 22rako elkarretaratzera deituko dituzte herritarrak.

Laburrak

Nafarroako Gobernuaren egoeraz hitzaldia, gaur

LEITZA › EH Bilduk hitzaldia antolatu du Nafarroako Gobernuan aurkeztu duen zentsura mozioaz, hauteskundeen eskariaz, eta oro har, Nafarroako Gobernuaren egungo egoeraz. «Nafarroan agintean egon diren eliteak gure herrialdea galbidera eramaten ari dira», azaldu dute. Hitzaldia gaur izango da, 19:30ean, Leitzako udaletxean, eta Bixente Goikoetxea eta Maite Iturri izango dira hizlariak.

Mendibil taldeak irteera eta afaria antolatu ditu

LEITZA › Mendibil mendi bizikleta taldeak irteera eta afaria antolatu ditu larunbaterako, hilaren 13rako. Altsasu-Urdalur-Altsasu izango da egingo duten ibilbidea. Zailtasun maila ertaineko 43 kilometro luzerako bidea. Animatzen direnek gaur izango dute izena emateko azken eguna. Astiz liburudendan edo *mendibilbtt@hotmail.com* helbidera idatzita egin ahalko da. Larunbatean, 13:30ean jarri dute hitzordua, Leitzako kiroldegian.

Josu Mendizabalen argazkiak, kultur etxean

IBARRA › Erakusketa berria izango da zabalik gaurtik hilaren 30era arte Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean. Hain zuzen ere, Josu Mendizabal ibartarraren *Zelanda Berritik* argazki erakusketa izango da ikusgai, 10:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era.

Ez ohiko bilkura egingo du gaur udalbatzak

IBARRA › Ez ohiko batzarra egingo dute gaur, Ibarrako udaletxean, 19:00etan. Diru laguntzen ordenantza eta Euskara Biziberritzeko Planaren luzatzea eztabaidatuko dituzte.

Alurrek nahi duen orori zuzendutako dantza ikastaroa antolatu du

Apirilaren 16tik maiatzaren 28ra izango da, asteartero; ez da aurretik izena eman beharrik izango

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Alurr Dantza Taldeak dantza ikastaro bat antolatu du, nahi duen herritar ororentzat. Apirilaren 16tik maiatzaren 28ra arte izango da, asteartero, 20:45etik 22:00etara, dantza taldearen lokal zaharrean, hau da, Ibarrako Ibai-Gain kaleko 6. zenbakian. Parte hartu nahi dutenek ez dute 0aurretik izena eman beharrik izango, nahikoa izango dute ikastaroko lehenengo egunean, apirilaren 16an azaltzearekin.

Alurr eguna, San Joan sua edota Ibarrako jaiak badatozela eta, Alurr Dantza Taldeak herritarrei ekimen horietan dantza eginez parte hartzeko aukera eman nahi die dantza ikastaroaren bitartez. Hala, muxikoak, larrain-dantza, eta beste hainbat plazako dantza ikasi eta errepasatuko dituzte. Dantza taldetik herritar oro animatu dute parte hartzera.

Alurr taldeko kideak dantzan. HITZA

Udal tramiteak sarean egiten ikasiko dute herritarrek KZgunean

Gaur eta hilaren 25ean izango dira ikastaroak Berastegin; aurrez izena eman beharko dute interesa dutenek

I. Terradillos Berastegi

Berastegiko Udalak webgune eraberritua (*www.berastegi.com*) du. Udalak adierazi duenaren arabera aukera «hobeak» eskaintzen ditu, eta horien artean tramiteak sarean egitearena nabarmendu dute. Izan ere, hainbat udal tramite udaletxera joan gabe euren etxeetatik egin ahalko dituzte herritarrek.

Bada, zein tramite egin daitezkeen webgunearen bitartez eta horiek nola egiten diren ikasteko hainbat ikastaro antolatu dituzte. Lehena gaur izango da, KZgunean, 11:00etatik 13:00etara. Apirilaren 25ean izango dira beste biak, 09:00etatik 11:00etara eta 11:00etatik 13:00etara. Ikastaro honetaz gain, kalkulu orriei buruzko programa erabiltzen ikasteko ikastaroa ere izango da gaur, 09:30etik 11:00etara. Ikastaroetan parte hartzeko izena eman beharko da aurrez, udaletxean nahiz KZgunean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK · 18:30ak arte hartzen ditugu · tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

2013-04-11 Eguraldia

Goiza: Arratsaldea: Tenperatura: 20º / 9º

Bihar

	OSTARTEAK	LAINOTUTA
GOIZA		
ARRATSALDEA		
BEROENA	17º	
HOTZENA	10º	

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo @hitza.info
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea @hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea @hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea @hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK, **Galtzaundi euskara taldea**, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile. **Hitza-k Bai Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia ▸ Ibarra

GAZTETXOAK GUSTURA MARGOTZEN

20. urteurrena ari da ospatzen aste honetan Ibarrako Txiribitu aisialdi taldea, ekitaldi ugarirekin. Atzokoan, esaterako, haurrak pintatzen aritu ziren plazan, eta begiraleek bitartean graffitia margotu zuten errekaren horman. Gaur txikienei zuzenduriko tailerra egingo dute, 17:30ean Txiribituren lokalean, eta bihar Jon Magic magoaren ikuskizuna izango da, 18:00etan kultur etxean. I.T.

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

▪ **Amezketa.** Amezketako Mendi Astearen barruan, Asier Izagirre tolosarrak Patagonian zeharreko bizipenak kontatuko ditu, 20:00etatik aurrera, kultur etxean.

▪ **Anoeta.** Kiroldegiaren gaur egungo egoeraren berri emateko bilera izango da, 19:00etan, udaletxean.

▪ **Amasa-Villabona.** Atez ateko hondakin bilketari buruzko eztabaida irekia izango da, gaur, Amasa-Villabonako Udalak antolatuta, gazteleraz. 19:00etan Gurea zinema aretoan izango da. Herritar eta alderdi politiko guztiek parte hartzea nahi dute.

▪ **Amasa-Villabona / Zizurkil.** Arropa birtziklatua egiten ikasteko ikastaroa antolatu dute bi udalek. Izena hilaren 30a bitartean eman daiteke, eta ikastaroa maiatzaren 6tik 24ra bitarte izango da 17:00etatik 20:00etara.

▪ **Ibarra.** Txiribitu Aisialdi taldeak antolatuta, gaztetxoentzako tailerrak izango dira Txiribitu aisialdi taldearen egoitzan.

▪ **Leitza.** EHBildu informazio saioak egiten ari da, nafarren iritzi eta kezkak biltzeko. Barcinaren aurkako zentsura mozioaz ere hitz egingo da. 19:30ean, udal aretoan elkartuko dira.

▪ **Tolosa.** II. Errepublikaren 82. urteurrenaren barruan, 19:15ean eta 21:45ean, Leidor aretoan, Trisha Ziff-en *La maleta mexicana* filma izago da. Lehen emanaldian, aurkezpena eta solasaldia egongo dira.

▪ **Zizurkil.** Elbarrenako festa batzordearen bilera izango da, 19:00etan. Atxulondo kultur etxean elkartuko dira festak antolatzeko helburuarekin. Herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Farmaziak

GAUR

▪ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

▪ **Beteku.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.

▪ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San martin, 5. Telefonoa:112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Apirilak 14 • Igandea
12:00
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Cajasol
saskibaloi partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.

harpidedunez TXOKOA hitza